

# Matrikulazio epea irekita Pertsonen Garapena eta Taldetako Lidergoa aditu ikastarorako

2007/10/31

Egin nahi duenak **Pertsonen garapena eta taldetako lidergoa** aditu ikastaroa, aukera izango du **matrikula** egiteko **azaroaren 1etik 30era** bitartean. Ikastaroa bera 2008ko urtarrilaren 11n hasiko da, eta iraungo du 2008ko abenduaren 19ra arte. Mondragon Unibertsitateko **Pertsonen eta Taldeen Garapenerako Kudeaketa Unitateak** antolatu du ikastaro hau, Newfield aholkularitza eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberarekin batera. Marian Iriondo eta Elena Quevedo arduratuko dira ikastaroaz.

## Nori zuzendua

Jende askok har dezake parte aditu ikastaro honetan:

- Talde zuzendari eta arduradunak.
- Pertsonak kudeatzeko sailetan dabilzan teknikari eta zuzendariak.
- Joera berriak kontuan hartu nahi dituzten zuzendariak.
- Goi mailako unibertsitate tituludunak, espezializatu nahi dutenak talde lidergoan.
- Maila ertaineko unibertsitate tituludunak, interesa dutenak pertsona garapenean eta talde lidergoan.

## Hiru modulu

1. Aditu ikastaro honek hiru modulu izango ditu:
2. Eskumenak eta baliabideak pertsonen kudeaketan. 30 ordu.
3. Eskumenak lidergorako. 180 ordu.
4. Azken proiektua. 100 ordu.

## Irakasleak

Lau irakasle motak irakatsiko dute ikastaro honetan:

- Mondragon Unibertsitatekoak.
- Newfield Consultingekoak.
- Kanpo aholkulariak.
- Enpresa profesionalak.

## Argibide gehiagorako

Ikastaro honetan saio presentzialak eta *on linekoak* izango dira, baita ikastaroan garatutako alderdiak osatzera bideratutako lanak ere. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak ikastaro honen gainean, **Elena Quevedori** dei egin diezaioke (615 74 53 42) edo mezu bat bidali helbide honetara: [elena\\_quevedo@huhezi.edu](mailto:elena_quevedo@huhezi.edu)

